

Euskara, euskalkiei eta batuari buruzko Ihardunaldiak Eibarren

Fernando Muniozguren

Duela urte batzu hasita, Eibarko Euskara Batzordeak "Gabonetako Kanpaina" dihardu antolatu eta egiten: euskal literaturari buruzko mahainguruak eginez ekin genion, ondoren, Jon Miranderi egindako omenaldiarekin jarrai. Iazkoan, Suomi-Finlandia, Algeria, Gales, Eire eta Euskal Herriko hizkuntzen egoerak eta gorabeherak soziolinguistika arlotik aztertuz, aurtengoan, euskara, euskalkiez eta batuaz izan dira ihardunaldiak.

Horretarako, eta gure ustez, hizkuntzak funtzionaltasun gehien duen arloetako espezialistak aukeratu genituen:

Irrati eta komunikabideez aritzeko Jose Mari Otermin. Administrazioaz, Jaurlaritzaren izenean mintzatzeko bere hitza emanda bazuen ere Pako Garmendiak, aldaketa politikoa gertatu zenez, ez zen etorri; bere ordez Eneko Oregi izan gue-larik.

Jean Louis Davantek zuberorari buruz eta Bittor Kapana-ga mendebaldeko (berak bizkaiera hitza ez bait zuen erabili nahi izan) inguruko euskalkien arazo, aportazio eta egoerari eman zioten jorratua.

Literaturaren ikuspegitik, Bernardo Atxaga eta Luis Mari Mujikak ihardun zuten

Erramun Baxok eta Txillardegia espero bagenituen ere sozio-linguistika eremutik gaia aztertzeke, azken honek bere etorri

ezina adierazi zigun, eri bait zen; ordezko, Iñazio Agirre etorri zitzaigun.

Hezkuntzaren arloari atxekituz, Xabier Kintana eta Adolfo Arejita izan ziren hizlari.

Azkenik, Itzulpengintzaz, bereziki ETBkoaz, Xabier Mendiguren eta Gizartearen eta Kulturaren ikuspegitik Federiko Krutwigek egin zuten heuren iharduna.

Programari dagokionez bukatzeko, esan dezadan Imanol Laspiurrek egin zuela sarrera hitzaldia.

Ihardunaldiak, 84eko azken astean eta 85eko lehenean egin ziren Eibarko Unibertsitate Laboralean (nahi zuenarentzat barnetegi moduan) matrikulatuentzat eta herri zabalarentzat Udaletxean. Joan zen urtean bezala, ponenteek, goizez ematen zuten heuren ponentzien berri eta bazkalondoren talde-lana, gero, galdera-erantzunak eta eztabaida. Azkenik, hizlariak Udaletxean amaitzen zuten beraien lan-egun eten gabea, txostenetako ideiak eta eritziak laburtuz herri zabalarentzat mintzo zirelarik.

Giroa, polita eta batzutan beroa ere izan genuen. Unibertsitatean, batzaz beste 70-80 lagun eta Udaletxean 40 bat bildu ohi ginen egunero. Datu oso garrantzitsua, aurtengoan iazkoan baino jende gazteagoa izan dugula eta gehiengoa irakaskuntza mundutik (ikastola, eskola transferitu, AEK, HABE, IRALETik), Udaletxetako eta Diputazioetako itzultzaile eta bestelako, Filologia ikasleak, politiko zenbait...

Sarrerarekin amaitze aldera, zera: lantxo honen helburua, ihardunaldien laburpen gisako konklusioa ematea da, hizlarien ideia eta tesi, oro har, garrantzitsuenak emanez.

Dena den, txostenak interesgarriak gertatzen direnez, berdin eztabaidak, eta arreta handia sortu denez ihardunaldi hauen inguruan, 85eko udaldera edo, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak argitaratuko du liburua, bera izan bait zen ihardunaldien laguntzaile, Udaletxetik ezer gutxi, deusik, txakur txikirik ere jaso ez genuelarik.

Euskarari buruz esandakoaren ondorioz

Dena erlazonaturik dagoela jakin arren, lantxo honen izen buru orokorreko lehen parteari euskarari dagokionez ez naiz gehiegi luzatuko ez bait da nire helburua. Dena den zerbait

esatekotan ekar ditzadan lehenbizi Erramun Baxoken hitzak, bere ustetan Euskal Herrian elebitasun etnikoa gertatzen dela esanez. Kanadan, Belgikan, Suizan... bi hizkuntza ofizial egon arren, ez du mundu guztiak biak jakin beharrik, bat jakinez bi-zi liteke. Estatua elebidun edo eleaniztun bada, nahi duenak elebakar izan, horretarako eskubidea ukan behar du. Quebec, elebitasun ofizialean bizi bada ere, elebakar da. Elebitasun etnikoan aldiz, eta guri dagokigunez, integratzeko erdara ikasi beharra dago, jatorrizko hizkuntza, denboraz, sinbolikoa bilakatzen delarik. Beraz, hizkuntzaren hilkortasunaren eta elebitasunaren artean harreman zuzena dago; etapak: elebitasun erreala, elebitasun integratzailea, elebitasun ondakina eta ondorioz akulturazio-menderapena, azkenik, hizkuntzaren transferra gertatuz. Horrek, diglosia iraunkorra izanik, elebitasuna iragankorra dela esan nahi du.

“Euskararen suspertzeko ERABIL hizkuntza bilakatu behar da eta erdara IBIL elea”.

Quebeceko dinamika, ERABIL eskubideak bultzatzea izan zen eta erabilpenaren ondorioz, hizkuntzak indarra eta ospe soziala lortu ahala, herria bera hasi zen irakaskuntzan sartu eta baliatzea eskatzen. Euskal Herrian ostera, badirudi Irlandako bidetik jo dela. Nahiz eta duela urteak baino hobeki egon egoera arlo askotan, ezaguera eta erabilpenaren artean dagoen “decalage”a arras kezagarria da.

Horra hor, bada, hitz gutxitan esanda euskararen egoera eta gerta dakiokena.

Batua eta bizkaieraren arteko tentsioa dela eta

Orain dela gutxi arte, euskalkiei buruz berba egiterakoan, euskalkiak anitzetan aipatzen ziren, gaur egun ostera, soilean hitz egiten da; bizkaiera bakar-bakarrik aitatzen bait da.

Bestalde, eta beharbada komunikabideen eraginez, baina baita ere Euskaltzaindiak azken urteotan hartu dituen jokae-rak direla medio, (*“gauza bera gertatuko ote zatekeen Aresti eta Mirande bizirik balira eta euskaltzainak izanik?”*), euskara batua edo standarra arras gipuzkeratu zaigu. Eta batuak euskalkiak elkartzeko izan behar badu, oinarri: aditza, morfologia eta ortografia standarrak onarturik, urrundu egin gara eta al-denduz goaz.

Diferentzia horiek murriztuz joan daitezten, elkarleku edo topalekuak sortu beharko dira. Horretarako, euskalki guztien frekuentzi edo maiztasun hitzak bildu beharko lirатеke eta oinarrizko maiztasun hiztegia, denontzat amankomuna, egin. Berdin, lokuzio eta espresio-klitxeekin.

Lan horren funtsezko ezaguera eta erabilera ugalduz joan ahala, euskalkien arteko elkar-konprensihoa eta distentsioa lortuko lirатеke, inork batuaren beharrik zalantzatan jarriko ez lukeelarik, betiko probintzialistetatik at, jakina. Argi gera bedi baina, hizkuntza beste edozein jakintza gaiekin egiten den legez, ikasi egin behar dela.

Aitzinean esanagatik gipuzkerak gehiegizko lekunea dauka gaurko batuan, eta hemen denok gara errudun. Batez ere gipuzkeraren mugetatik kanpokoak garenok, idazten dugunean, geure euskalkiaren maiztasun formarik erabiltzen ez dugulako behar beste. Zergatik idatzi behar du bizkaitar batek "bukatu" "amaitu"ren ordez? Zergatik lapurtar batek "nahikoa" "aski"ren ordez? Eta horrela bizirik dirauten euskalki guztiekin. Ez al dira bada gipuzkeratik kanpoko beste euskalkien maiztasun formak gipuzkerarenak bezain baloredunak hizkuntza standarrerako?

Ihardunaldietako beste konstante bat, hizkuntz mailena eta funtzioena izan zen. Beharbada, tesi hau onartzean eta praktikan jartzean datza tentsio honen soluzio-bidea.

Hizkuntza garatu edo desarroilatu guztiek dute hizkuntz-piramidea; baina, jakina, gailur bakarrekoa, eta ez bikoitza, orain bizkaieraren bultzatzaile amorratuek egin nahi duten moduan.

Gailur horren azpian egongo lirатеke, bakoitzak bere funtzioa betez: euskalkiak, heuren egiazko eginkizuna, etxean, lagun artean, herri mailan, auzoan, herri-komunikabideetan... erabiltzeko; gauza bera dialekto sozialekin zein profesio-jergekin, beraien lekune bereziak eduki beharko lituzkete, horrela gertatzen bait da hizkuntza guztiekin. Zer esanik ez, jokaera hau onartuz, euskalki eta dialekto sozial oro batuaren elikagai izanen lirатеkeela maiztasunaren proposamendua kontutan izanik.

Ezinezkoa dena da, administrazio, komunikabide nazionaletan, literatur produkzioan, irakaskuntzaren lehen ziklotik kanpoko mailetan... euskalkia bultza nahi izatea.

Behin puntu honetan esan dezadan, benetako auzia ez dela batua-bizkaierarena, euskara-erdararena baino; batuak galtzen dituen espazioak, erdarak hartu eta betetzen bait ditu. Beraz, argi eta garbi dago, batua suspertzen ez den lekuetan, euskalkiak ere pikutara doazela eta joanen direla. Orduan, osagarri egin ditzagun, eta ez, askok eta askok egiten duen moduan, gero eta gutxiagok zorionez, komunikabideetako euskara txarra delako batzuk, eta konplexatuak besteak, toma egin.

Lehen egunetan hots asko, zenbait hitz harrapatuko dituzte eta orokorki zerbait ulertuko. Ohituraren ohituraz, orokorki dena ulertuz, azkenik, hitz aparta batzu ezik ez dute arazorik izanen eta horrela euskararen erosioari eutsiz euskaldungoa gaitu egiten da "competance" eta "performance"an. Euskaldun zaharrekiko arazo berbera dute euskaldun berriek, baina zaharrek apenas alfabetatzen diren, berriek, ohituraren ohituraz behar dute ikasi herri mintzaira.


Dударик ez, batua artifiziala gerta litekeela, baina hori hizkuntza standar guztiakin gertatu ohi da. Eta bestalde, isoglossen, hiztunon mugikortasuna dela medio, euskalkien panorama gero eta lainotsuagoa da, lausoagoa.

Beraz, arrazoi horiez gainera Bizkaiko euskalkiek erosio handia jasan badute azken hogeit urte hauetan, zer bizkaiera mota irakatsi behar da? Ez ote da bizkaiera osatua ikastea, batua ikastea bezain zaila? Zertan ari da orduan Bizkaiko eliza? Beraien helburua bizkaiera osatua ikasiz batua irakastea bada, Enkarterrietan, adibide bat jartzeagatik, nolatan dihardu bizkaiera osatu hori irakasten euskaldunik ez dagoen lurraldean? Horrek, darabilten diskurtsoaren faltsukeria adierazten du. Batuak azken urteotan hartu duen joerarekin bat ez etortzea gauza bat da eta beste bat mendekua.

Davantek esan zuen moduan, "h" dun gipuzkera bilaka ez dadin idazle bakoitza bere euskalkiko maiztasun-formak erabiltzen hasi beharko litzateke, Baxoken arauera, batua euskalkien bilduma-bilgunea izan dadin. Eta honetan, gipuzkeradunek badute zer esanik: lehenengoz, ingelesek duten joera baztertzea; alegia, beren erara mintzatzea inolako moldaketarik egin gabe. Bigarrenik, batuaz mintzatu behar den tokietan horretan ahalegintzea; bestela, besteek ere beren euskalkian hitz egitea zilegiztat jo behar da, eta horrela Babeletik ez gara aterako; beraz, ondorioz euskara galtzera letorke Hirugarrenik, besteren euskalkiaz ez trufatzea, hizkuntza erosionatua

izan eta "bentanie" eta "kabailue" esaten duelako. Laugarren eta azkenik, gipuzkera erabiltzeko grina horrekin, berdin batua erabili behar denean, denon oroimenean dauden gustoa egiten diharduzue: LTH linguistikoa bultzatzen.

Amaitzeko ager dezadan Txillardegik bere soziolinguistika ikastaroetan darabilen Haugen-en hizkuntza standarreko eskema:



Hau bete dadin, horrela gertatu bait da mundu osoan, azken puntua, laugarrena, onarpen sozialarena falta zaigu ziurtatzea, bigarrena eta hirugarrena, kodaketa eta osaketa denbora asko erre gabe nahiko burutuak bait daude.

Nire eritzi apalean, funtsean arazoa politikoa denez, erasoak izanen dira oraindik; euskararen aholku batzorderako azken hautatuak nortzu diren gogoratzea besterik ez dago horretarako.

Iparraldekoak eta nafarrak ahaztu gabe, eta mendekuzaleek motiborik ukan ez dezaten, ez ote litzateke hobe 70-74 urteetako joerarantz egitea? Iparraldean. Baxoken hitzetan, hemendik igortzen zaizkien ikastolarako testuak, gipuzkeraren eragin handia dutenez egokitu beharrean aurkitzen bait dira.

Azkenik ez nuke galdera garrantzitsu bat egin gabe amaitu gura:

LTH linguistiko hau, ez ote da Euskal Herriak botere politiko eta instituzio bateraturik ez duelako?